

## GAZTE PROGRAMA, 2019

### 1. edizioa

#### HITZAURREA – JUSTIFIKAZIOA PRESTAKUNTZA, ARTE ETA OFIZIOEN ESKOLA

Agiri honetan aurkezten dugun “Gazte Programa” honen jatorrian lankidetzatza dago; hain zuzen ere, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolak eta Pilarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (Kale Heziketako Udal Programa) 2016tik garatua, zeina [12Nubes](#) eta [Pompa945](#) proiektuen bidez gauzatu zen. Lankidetzatza horren emaitza, zenbait ikus-entzunezko eta erakusketa sortu dituzte erakunde inplikatuak (besteak beste [“De Nubes y Tizas”](#) film laburra, [#ojalamañanano haya clase](#), [El Divino Pilar](#)), eta baita proiektuan parte hartu duten gazteek Eskolan ikasteko beka-programa bat ere, azken hiru urteetan gauzatu dena, América Fundazioak finantzatuta.

Prestakuntza-eskaintza honek erantzuna eman nahi dio:

- gazteen zenbait interesi: sormen artistikoa, teknologien erabilera, adierazpena eta komunikazioa eta artearen bidezko garapen pertsonala;
- atzemandako zenbait beharri: hezkuntza-sistema arautu benetan zurrin bati, zeinak ez duen ikasturtean zehar prestakuntza-jarduerak hasteko edo haietara itzultzeko aukerarik ematen.

Horregatik da, beraz, Gazte Programa hau hiruhilekoa: urtarrilean hasten da, eta astean bi egunetan garatzen da. Programaren osagaiak (helburuak, edukiak, metodologia, gaitasunak...) zuzentzen zaion kolektiboaren ezaugarrietara egokitzen ditu.

#### HELBURU OROKORRAK:

- Gazteen artean atzemandako behar bati erantzutea.
- Zenbait diziplina artistikotan hasteko ateak irekitzen laguntzea.
- Lan-munduan sartzen laguntzea.
- Artea gizarte-eraldaketarako tresna gisa baliatzea.

#### BERARIAZKO HELBURUAK:

- Marrazketa, margolaritza, argazkigintza eta bolumenaren alorretako ezagutza tekniko eta kontzeptualak eskuratzea.
- Diziplina horietako teknika eta material mota garrantzitsuenetara hurbiltzea.
- Giro aberasgarri bat sustatzea, garapen pertsonala ahalbidetzeko modukoa.
- Edukietan genero-ikuspegia, kulturartekotasuna eta abar txertatzea zehar ardatz gisa.
- Ikasleengan artearekiko zaletasuna eta interesa sustatzea.
- Lan-esparruan aplikatzeko moduko tresnak eskuratzea.

## GASTEIZKO ARTE ETA OFIZIOEN ESKOLAKO "GAZTE PROGRAMA" BEKAK – HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Programa honetarako hautaketa egiteko, gure hiriko gazteek bizi duten errealitatea hartu dugu oinarri.

Eskola-sistemak nolabaiteko prestakuntza-jardueraren bati lotuta ditu 16 urte bitarteko gazte gehienak, hots, derrigorrezko eskolatze-aldia dagokion adin-tartean dauden gehienak. Gazte horietako askok nahiko edo oso jokamolde pasiboa dute, eskola-inguruarekiko gatazkatsuak dira, kalifikazio baxuak dituzte, etab. Eskola-sistemak ez die beren itxaropen, igurikimen eta beharrei erantzuten; aitzitik, motibazioa galarazten die, hartara beren jokabidea sortuz eta indartuz.

Hona profil edo soslai komuna, eskola-porroteko ibilbideak markatua: prestakuntza goiz uztea, baita okupazioa eza, pasibitatea... Kiribil negatibo batean sartzea eragiten du, zeinean etsipena, pasibitatea eta norbere buruaren ahultzea nagusitu daitezkeen, horren ondorioak inguru guztira zabaltzen direlarik, batez ere familiara. Pertsona horiek lan-merkatuan sartzen direnean ere prekarietate giro batean sartzen dira, kualifikaziorik gabeko lanpostuak eskuratzen dituzte (soldata eta segurtasun-maila eskasa, behin-behineko kontratuak...); batzuetan oso goiz sartzen dira lan-munduan, eta askotan denboraldi luzeak ematen dituzte lanik gabe.

Hezkuntza-sistema eta lan-mundua ez dira gauza 15 eta 18 urte bitarteko gazte-kolektibo horri baliabideak eta erantzunak eskaintzeko, eta horrek integrazio- eta egokitze-arazoak eragiten dizkie epe ertain eta luzera. Oinarrizko LHa aukera berri bat da gazte horientzat, baina eskas geratzen da, adinez nagusientzat, batez ere.

Bada populazio ahulenean eragiten duen beste faktore bat: hirian badira ezaugarri "berezik" zenbait ikastetxe, batez ere A ereduari eusten diotenak. Ikastetxe horietan ghettoen zenbait ezaugarri agertzen dira: haietan pilatzen dira batez ere immigranteak, ohiko da ikasturte erdian ikasle berriak hastea, baita Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatzen dituzten familiak, jende txiroa, gutxiengo kulturalak, komunitate hartzailearen hizkuntza eskuratzeko arazoak... Horrek guztiak eragotzi egiten du eskolatze "normalizatua" eta, ondorioz, baita eskola-arrakasta ere.

Badira, baita ere, Lehen Hezkuntzako gutxieneko gaitasunak bereganatu gabe DBHn hasten diren ikasleak; horrek nekezago bihurtzen du curriculumean ezarritako erritmoa jarraitzea, eta, ondorioz, areagotu egiten ditu ikasle horien frustrazioa eta desmotibazioa. Prestakuntza-zirkuituetatik DBHko titulua lortu gabe irteten dira, maila ertaineko ikasketarik gabe, eta, horrenbestez, lan-merkatuan modu egokian sartzeko gutxieneko bermerik gabe. Hartara, errepikatu egiten da porrotaren eta motibazio ezaren zikloa.

Errealitate horren jakitun garelarik, hautaketaren lehen irizpide gisa planteatu dugu gazte horiek hiriko gizarte-zerbitzuek artatzen dituzten familietako kide izan behar dutela, aintzat hartuta inguruabar horrek okerragotu egiten duela orain artekoan azaldu dugun egoera.

Horrenbestez, programa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Inklusio Zerbitzuaren eta Hautzaro eta Familia Zerbitzuaren eskuetan utzi da, horietako erreferentziazko profesionalak

aztertu ditzaten esku artean dituzten kasuak, zeinetan, gainera, deskribatu dugun eskola-errealitatea islatzen den.

## **ARGAZKIGINTZA MODULUA**

EDUKIAK:

### **Jatorria.**

Kamera iluna eta irudiaren eraketa esperientzia gisa.

Kamera ilun erraldoia.

### **Generoak aitzakia gisa.**

Autorretratu: zer da, nor naiz ni, nola ikusten dut nire burua eta nola erakusten dut, *selfieak*, etab.

Erretratu: nola ikusten ditut besteak, nola erakutsi nahi ditut... (argi naturala eta platoko argiztapena). Fotomuntaketa taldeko pertsona bakoitzaren zatiekin (integrazioa).

Argazki-albuma: oroitzapenak, bidaiak, familia...

### **Begiratu eta kontatu**

Argazki-hizkuntza. Zer kontatzen digute irudiek, eta nola?

Irudien analisia. Argazki ikonikoak/historikoak. Zer kontatu nahi dute, eta nola?

Argazkia, egiatasuna eta/edo fikzioa.

Argazkigintza sareetan: irudi-eskubideak, pribatutasuna, intimitatea, errespetua...

### **Itzalak eta argiak**

Argiaren adierazpen-indarra: intentsitatea, noranzkoa, kalitatea, kolorea, etab.

### **Teknika**

Oinarrizko argazki-teknika. Kameraren/mugikorren konfigurazioa eta erabilera.

### **Fanzinea**

Fanzinea, edukien autokudeaketa eta autoediziorako tresna.

### **Argazki-laboretegi digitala.**

Irudi-formatuak, irudiaren bereizmena eta tamaina, irudia pantailan eta irudi inprimatua.

Irudi-doikuntzak: argitasuna, tonua, kontrastea, ZB.

Fotomuntaketa eta oinarrizko ukitua.

### **Ikus-entzunezkoak**

Mugimenduzko irudia edo/eta bideoa.

JARDUERAK:

### **Mundua hankaz gora**

Kamera ilun erraldoiaren barruko esperientzia, irudiaren eraketa.

Helburua: argazki-irudia nola sortzen den *in situ* esperimentatzea.

Metodologia: aktibo demostratiboa.

### **Agintean**

Argazki-teknika. Kameren/mugikorren konfigurazioa eta erabilera.

Helburua: ikasleei argazkigintza-tresnak erabiltzeko oinarrizko ezagutzak eskaintzea.

Metodologia: aktibo demostratiboa.

### **Eta zu, nor zara?**

Autorretratutik *selfiera*.

Erretratu-ariketa, estudioko argiztapenarekin.

Gero, fotomuntaketa-ariketa.

Argazkigintza sareetan: irudi-eskubideak, pribatutasuna, intimitatea, errespetua, umezurtz digitalak...

Helburua: erretratuaren eta autorretratuaren teknika baliatzea pertsonen arteko harremanetan sakontzeko, eta integrazioa eta tolerantzia sustatzeko.

Metodologia: kooperatiboa.

### **Laborategi digitala.**

Irudi-formatuak, irudiaren bereizmena eta tamaina, irudia pantailan eta irudi inprimatua.

Irudi-doikuntzak: argitasuna, tonua, kontrastea, ZB.

Oinarrizko fotomuntaketa.

Helburua: ikasleei irudiak kudeatu eta editatzeko baliabide eta tresna digitalak eskaintzea.

Metodologia: aktibo demostratiboa.

## MARRAZKETA, MARGOGINTZA ETA BOLUMEN MODULUA

EDUKIAK:

### Marrazketa:

**Natura hila:** Enkajea. Orokorretik partikularrera. Oinarrizko elementu primarioak: puntua, lerroa eta planoak.

**Paisaia:** Proporzioaren erabilera. Argia eta itzala. Soslaia, silueta.

**Giza irudia:** Erretratuaren eta giza-anatomiaren kopia eta estudioa. Kanonak eta proporzioak. Autorretratuak.

**Perspektiba:** Perspektiba konikoa. Argazkia eta komikia.

Ikatz-ziriaren erabilera, marrazketaren oinarrizko **teknika** den aldetik.

### Akuarela:

**Kolorea:** Zirkulu kromatikoa. Kolore primario, sekundario eta tertziarioak. Kolore osagarriak. Erabilera eta psikologia.

Ñabardurak eta saturazioa. Kolore hotz eta beroak. Nahaste optikoa. Estaltzea. Geruzak.

**Efektuak:** hezearen gainean, erreserba kandlekin, gatza, zipriltinketa, ...

### Zeramika:

#### Alderdi fisikoak

Testura, oreka, erritmoa eta kolorea.

Seriazioa eta errepikapena: Negatiboa eta positiboa.

Espazioa, bolumen sortzaile; bolumena, espazio sortzaile.

**Teknika:** Buztina modelatu eta hustutzea

Modelatu eta hustutzeko zenbait teknika, eta piezak erreketarako prestatzea.

Xafla-modelatua, biribilki trinko edo egituraduna

Piezen hustuketa, itsasketa, erreketak eta akaberak

Materiala eta tresna

- Buztina: Buztin mota desberdinak, ezaugarri nagusiak eta erabilera-motak.
- Modelatu-tresnak, eskuetatik laberaino.

**Akaberak:** Esmalteak eta hotzeko akaberak

JARDUERAK:

### **Marrazketa**

Bolumen-ariketa errazak

Paisaiari buruzko lanak egitea, grisetik abiatu, zuriak atera eta beltzak nabarmenduz.

Beltzetik abiatuta, marraztu, kreta zuriarekin ezabatu eta/edo margotuz.

Helburua: argi-iluna erabiltzen ikastea, ikatz-ziriaren oinarriko teknikaren bidez

Metodologia: aktibo demostratiboa.

### **Akuarela**

**Efektu-probak:** hezea hezearen gainean, erreserba kandlekin, gatza, ziprztinketa; hondo gisa erabiltzea. Haien gainean, ikasleek lehenago argazkigintzan jorratutako irudiak joango dira.

Beltzetik abiatuta (Parker tinta baliatuta), lixiba bidez zuriak atereaz marraztea.

Agian, azken teknika horrekin kamiseta bat egiteko proiektua

Helburua: Akuarelak eskaintzen dituen aukera desberdinekin esperimintatzea.

Metodologia: aktibo demostratiboa.

### **Zeramika**

Testura-ariketak. Xafla gaineko inprimaketa. Teknika: modelatua.

Ariketak pieza jakin baten igeltsu-moldeekin. Positibatua.

Zintzilikario bat egiteko aukera.

Helburua: Akuarelak eskaintzen dituen aukera desberdinekin esperimintatzea.

Metodologia: aktibo demostratiboa.

## EBALUAZIOA

Helburuak lortzeko bidean hiru ebaluazio egingo dira:

**Aurretiazko ebaluazioa:** programazioarekin batera, ikasleen azterketa egingo da, eta bakoitzarentzako programa espezifikoa diseinatuko da.

**Ebaluazio jarraitua:** prozesuak dirauen bitartean, helburuek, jarduerak eta metodologiak ondo funtzionatzen dutela aztertuko dugu, programazioan diseinatuarekin bat datorrela. Garaiz egongo gara haiek aldatu edo ikasleei egokitzeko.

**Azken ebaluazioa:** azken emaitza aztertuko dugu, galderen bitartez, jorratutako alderdi, eduki eta jarduera guztiei buruzko galderak, metodologiari buruzkoak, irakasle eta ikasleei buruzkoak...

Hori guztia ikastaro-amaierako **memoria** batean bildu eta islatuko da, aurrerantzean proiektu hau hobetzen lagunduko diguna.

### ELKARRERAGINA/LANTEGIAREN DINAMIKA

Argazkigintzako lantegian materialak eta irudiak sortuko dira, marrazketakoan eta margolaritzakoan baliatuko direnak. Adibidez: autorretratuak.

Ikastaroan sortutako materialetako batzuk bilduko dituen fanzine bat egingo da guztien arteko proiektu gisa.

### AMAIERAKO ERAKUSKETA

Ikastaroaren amaieran partaideen sorkuntza-lanak agerian uzteko erakusketa bat prestatuko da. Erakusketaren datak eta lekua zehazteke daude, hiriko erakusketa-aretoen eskuragarritasunaren mende. Arte eta Ofizioen Eskolak 60 €-ko aurrekontua dauka hedapenerako. Lantegia aparteko aurrekontu batekin hornitu beharko litzateke erakusketa prestatu ahal izateko.

### HARTZAILEAK.

Ikastaroa 16 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzentzen zaie.

## EGUTEGIA

### **2019/02/19, asteartea**

Kamera iluna eta irudiaren sorrera, esperientzia gisa.

### **2019/02/21, osteguna**

Argazki-teknika.

-Kamera: motak, aginduak eta menu nagusiak.

-Kameren konfigurazioa.

### **2019/02/26, asteartea**

Argazki-teknika.

-Argiaren kontrola.

-Abiadurak eta diafragma.

### **2019/02/28, osteguna**

Argazki-teknika.

Praktikak kalean: Mugimendua izoztu eta erregistratzea.

Eremu-sakoneraren kontrola.

### **2019/03/05, asteartea**

Argazki-teknika.

-Argiaren neurketa.

### **2019/03/07, osteguna**

Argazkigintza-generoak.

Autorretratua vs. *selfiea*.

Autorretratu-praktika.

### **2019/03/12, asteartea**

Argiaren adierazpen-indarra.

Intentsitatea, noranzkoa, kalitatea, kolorea, etab.

### **2019/03/14, osteguna**

Argazki-hizkuntza.

Zer kontatzen digute irudiek, eta nola?

Praktika. Istorio baten kontaketa-narrazioa 3 argazkitan.



**2019/03/21, osteguna**

Irudi digitalaren oinarriak.

Irudi bektorialak vs. bit-mapa irudiak.

Irudiaren tamaina.

Ebazpena.

Artxibo-formatua.

**2019/03/26, asteartea**

Irudi-edizioa.

Distira eta kontrastea: mailak eta kurbak.

**2019/03/28, osteguna**

Irudi-edizioa.

Kolore-doikuntzak: tonua, saturazioa eta oreka.

**2019/04/02, asteartea**

Irudi-edizioa.

Zuri-beltzaren adierazpen-indarra.

**2019/04/04, osteguna**

Fotomuntaketa eta oinarritzko ukitua.

**2019/04/09, asteartea**

Fotomuntaketa eta oinarritzko ukitua.

**2019/04/11, osteguna**

Arkatz-ariketa errazak.

**2019/04/16, asteartea**

Hastapen-ariketak ikatz-ziriarekin.

**2019/05/02, osteguna**

Ikatz-ziri difuminatua.

**2019/05/07, asteartea**

Ikatz-ziria eta kreta zuria zatar-paper gainean.

**2019/05/09, osteguna**

Zirkulu kromatikoak.

Erreserba kandlekin.

**2019/05/14, asteartea**

Nahasketak

Gatzez eginiko efektuak.

**2019/05/16, osteguna**

Degradazioa.

Erretratua.

**2019/05/21, asteartea**

Degradazioa bi kolorerekin.

Ziprztinketa.

**2019/05/23, osteguna**

Ilustrazioa.

*Urban scketch.*

**2019/05/28, asteartea**

Txurroen teknika. Ontzia.

**2019/05/30, osteguna**

Txurroen teknika.

Ontzi-akabera eta esmaltatua.

**2019/06/04, asteartea**

Xafla-teknika. Platera.

**2019/06/06, osteguna**

Xafla- eta erliebe-teknika. Zintzilikario bat.

**2019/06/11, asteartea**

Platera eta zintzilikarioaren akabera eta esmaltatua.